

Aitzin solasa :

Gure hizkuntza hobetü nahiz, IKASek honenbeste jardünaldi, aditzaz, hiztegi az... antolatü dütü. Azken sail honek hizkuntz formak eta bereziki egituraren erabilera ikertü nahiko lüke. Hizkuntza bat behar bezala erabilteko, erranaldi baten sortzeko, hiztegia, aditzak, gramatika, deklinabideak... peretxatü behar dira eta arren, egokiena, xüxenena erabili behar da. Sail horik oro, etxe bat eraikitzen den gisan, egituratü behar dira. Egitüra txarra balinbada, etxea oker date eta bertan eroriko da. Aldiz, egindüra, bere berezgoan eraikitzen balinbadügü, gure etxeak aterbetzen ahalko gütü.

Haatik, hargintza mota hau gero eta zailago zaigü, hizkuntza arrotzen buhakadek azkarki iharrausten gütüelakoz eta erranaldi zaharrak dion bezala : *aizeak nora, zapiak hara !* baratx-baratx bena segurki gure hizkuntzari latizko hizkuntza arrotz nausiaren egitüra emanaz, desbidealatzeko galbidean sarrerazten ari gira.

Hola nola, ipuin llabür bat baliatüz, eta alor publikoan hedatü diren ikusbide zombaiten bidez, bertan ohartüren gira bide hortan goatzala, hizkuntza nausi arrotzen kozadüra mota honek, den-denak hunki gütüalako. Haatik, nahiz eta aize azkarra izan, indar apür bat egiten balinbadügü, ezaxolkeriak baztertzen balinbadütügü eta « *euskaraz den ber,... hola ützt !* » üsüegi erantzüna zaigün hertitz mota hau ez balinbadügü haboro honartzen, euskarari, bere nortarzüna, bere balioa ütüliren deiogü eta harro girate erraitea : ni, euskaraz bizi niz.

Ipuin Ilabürra

Egün batez, aberats zen gizon gazte batek eman zeion laborari behardün bati zare bat undarkiz beterik. Erri bateki laborariak hartü zeion eta joan zen. Zarea xahatü ondoan, bete züan lili ederrez. Gero, laboraria joan zen gizon aberatsaren etxealat eta eman zeion liliz beterik eta xahü zen zarea.

Harritürik, gizon gazte aberatsak galtegin zeion : « *Zergatik emaiten deitak holako zarea lili ederrez beterik, nik eman neialarik ondarkiz beterik ?* »

Ordüan, erriño bateki laborariak arrapostü eman zeion : « *Jente bakoitxak emaiten dü bihotzean düana.* »

Erdaraz :

Un jour, un jeune homme riche donna à un pauvre paysan un panier plein de déchets. Avec un sourire le paysan lui prit et il partit. Après avoir lavé le panier, il l'avait rempli de jolies fleurs. Ensuite, le paysan s'en alla à la maison de l'homme riche et il lui donna le panier qui était propre et rempli de jolies fleurs. Etonné, le jeune homme riche lui demanda : « Pourquoi me donnes-tu un tel panier rempli de jolies fleurs, quand moi je te l'avais donné rempli de déchets ? » Alors, avec un sourire le paysan lui répondit : « Chaque personne donne ce qu'il a dans le cœur. »

Bi hizkuntzak saiheskatüz :

Un jour , un jeune homme riche donna à un pauvre paysan
Egün batez, gizon gazte aberats batek eman zeion laborari behardün bati

un panier plein de déchets. Avec un sourire le paysan lui prit et il partit.
zare bat undarkiz beterik. Erri bateki laborariak hartü zeion eta joan zen.

Après avoir lavé le panier, il l'avait rempli de jolies fleurs. Ensuite, le paysan s'en alla
Zarea xahatü ondoan, bete züan lili ederrez. Gero, laboraria joan zen

à la maison de l'homme riche et il lui donna le panier qui était propre et rempli de jolies fleurs.
gizon aberatsaren etxealat eta eman zeion liliz beterik eta xahü zen zarea.

Etonné, le jeune homme riche lui demanda : « Pourquoi me donnes-tu
Harritürik, gizon gazte aberatsak galtegin zeion : « Zergatik emaiten deitak

un tel panier rempli de jolies fleurs, quand moi je te l'avais donné rempli de déchets ? »
holako zarea lili ederrez beterik, nik eman neialarik ondarkiz beterik ?

Alors, avec un sourire le paysan lui répondit : « Chaque personne donne
Ordüan, erriño bateki laborariak erantzün zeion : « Jente bakoitxak emaiten dü

ce qu'il a dans le cœur. »
bihotzean düana. »

Euskarazko egitüran :

Egün batez, gizon gazte aberats batek, undarkiz beterik zen zare bat, laborari behardün bati eman zeion. Laborariak, erri bateki, hartü zeion eta joan zen. Zarea xahatü ondoan, lili ederrez bete züan. Gero, laboraria, gizon aberatsaren etxealat joan zen eta liliz beterik eta xahü zen zarea eman zeion. Harritürik, gizon gazte aberatsak galtegin zeion : « *Zergatik emaiten deitak holako zarea lili ederrez beterik, nik, ondarkiz beterik eman neialarik ?*

Ordüan, laborariak, erriño bateki erantzün zeion : « *Jente bakoitxak bihotzean düana emaiten dü. »*

Bi hizkuntzak saiheskatüz :

Un jour un jeune homme riche un panier plein de déchets
Egün batez, gizon gazte aberats batek, undarkiz beterik zen zarea bat,

à un pauvre paysan lui donna Le paysan, avec un sourire,
lui prit laborari behardün bati
eman zeion. Laborariak, erri bateki, hartü zeion

et il partit Le panier après l'avoir lavé de jolien fleurs il l'avait rempli
eta joan zen. Zarea xahatü ondoan, lili ederrez bete züan.

Ensuite, le paysan, à la maison de l'homme riche s'en alla et de
jolies fleurs Gero,
laboraria, gizon aberatsaren etxealat joan zen eta liliz
beterik

et propre qui était le panier lui donna Etonné, le jeune
homme riche eta
xahü zen zarea eman zeion. Harritürik, gizon gazte
aberatsak

lui avait demandé : Pourquoi me donnes-tu un tel panier rempli de
jolies fleurs
galtegin zeion : « Zergatik emaiten deitak holako zarea lili ederrez
beterik,

quand moi rempli de déchets je te l'avais donné ? »
nik, ondarkiz beterik eman neialarik ?

Alors, le paysan, avec un sourire lui répondit: « Chaque personne
Ordüan, laborariak, erriño bateki erantzün zeion : « Jente bakoitxak

ce qu'il a sur le cœur donne. »
bihotzean düana emaiten dü. »

Oharrak :

Hizkuntzaren ahültzea ez da egünko gaüza, igaran mentean, erdararen indartzeareki abiatü den ezin eküratüzko odol ixurte bat bezala da :

« ...Alemaner beharko **dela** pakarazi.... »

« ...Gure lagüntza emaiten bad**ügü** soldadoer... »

« ...Behi bat galdürrik izan da, ikusi düanak izkiriba **dezan** Sohütako Jaun Merari edo sala **dezan** bere nausiari... »

In *Euskalduna aldizkaria* ; Marzel Bedaxagar/ Mendililia 2016/05/21

«Bertan da ere mementoua -noiz eta ere, Jauna eraïtchiko beita althare hounen gaigniala. Apezak othoitze eginten dü Eliza saintarentzat.... »

In *Ofiziuak / Mezako Othoitziak* (1942)

Gogoan etxek ezazü :

Erdarazko erranmoldeak honartzen ez balinbadira euskarazkoak ere ez dira honartzekoak. Arren, hizkuntza bakoitxak düan egitüran idatzi behar da.

Aldepeko euskarazko hoinarrizko egitüra peretxatüz erranaldiak herrokatzen ahal dira : ikusbidez erranadi arrunt hontan :

Pettek	sagarra	xuritü	dü.
Aditzjabe	Osogarria	Aditza	Aditzlagüna

Alkarzale edo erlatibozko erranaldietan, alkarzalea ahal bezain goizik ezarri behar da : Ikb : Gaüza hanitx hitzemaiten dü**an** gizon horrek lehendakari izateko itxaropena dü.

Osogarri edo lonpletibozki erranaldietan, osogarria erranaldiaren ürrentzean jarten da : Ikb : Pettek erran deit, gaüza hanitx hitzemaiten düan gizon horrek, lehendakari izateko itxaropena dü**ala**.

Ikusbide güziak baliatüz holako erranaldia egin daiteke : Sagarra xuritü düan Pettek erran deit, gaüza hanitx hitzemaiten düan gizon horrek, lehendakari izateko itxaropena dü**ala**.